

# Euskal musikak tristetzen zuen mutikoa

PAKO ARISTI

**B**AZKARIA, bakoitzak berea ordaintzea gustatzen zaio, «estudianteak bezala», Zuzenbideko karrera aspaldi bukatu zuen arren. Kotxea baino garestiago ordaindu duen pianoa eguneroko astinduz musika karrera bukatzen ari da, eta hasi da bere lehenengo kuartetoak konposatzen. Itoiz taldearen aroa bukatzen ari zela mundu berri bat zabaldu zion Jon Intxaustegi produktoreak, TVEko agintariren aurrean Juan Carlos Perez defendatu zuenean, Bernaola konpositore ospetsuaren aurka, *La aventura humana* programaren musika egiteko. Handik atzera, *Flannery eta bere astakiloak* eta *Marraskil Bos* saioei ipini die musika, besteak beste.

Mutrikun jaioa, gurasoak gailegoak ditu. 18 urterekin egin zuen bere kantarik ospetsuena, *Lau teilatu*, baina kanta nori eskaini ote zion, misterio hark bizirik dirau gaur egun.

Iaz *Atlantic River* izeneko disko bitxia atera zuen. Portugaldik Bilbora etortzen den karga unti bat da *Atlantic River*, eta lana sinatzen duen izena, JC Perez, egileak 'marka' edo 'etiketa' bilakatzea nahiko lukeen deitura.

— Itoiz bezalako talde baten babesa uzteak ez zizun beldurrik eman?


— Ez, jendeak pentsatzen du friboloki laga genuela, zeren jende asko joaten zen kontzertuetara, enpresak ondo funtzionatzen zuen, baina musikaldia erreta geunden azken bi urteetan, estilo zehatz bat hartu genuen, beharbada nahi gabe, jendea alde batetik eta geu bestetik; pop estilo batean sartu ginen, kitarran oinarritutakoa, eta horri ez genion irteerarik ikusten. Eszenariora igotzeko gogorik ez geneukan.

— *Rolling Stones*-ek jarraitzen du bada 50 urterekin...

— Jende horrek jotzen segitzen du etiketa komertziala delako, Persil den bezala, saldu egiten duelako izenak. Itoiz ere etiketa bat bilakatu zen, eta gaurregun El Corte Inglesera joaten bazara han ikusiko duzu Itoizen lekua, sail berezi bat bezala. Itoiz, hor parte hartu genuen guztion abizena bilakatu da, Juan Carlos Itoizekoa esaten du jendeak.

— Zuzeneko emanaldi jendetsu haien nostalgiarik ez duzu?

— Emozionantea izan zen, baina aroak pasa egiten dira eta ziur aski holako arorik ez da etorriko gehiago. Baina Itoizi buruz pentsatzen dudanean nere nostalgjak ez doaz hortik. Guk ez genuen asko sinesten jendearen efusibitatearengan, nahiko hotzak ginen, zeren Parisen, Poitierren edo Toursen jotzen genuenean oso jende gutxi



JC Perez. /POSTIGO

etortzen zen diskotekara. Bi kontzertu klabe izan genituen, batez ere Bilboko la Casillan emandakoa. Goiz hartan Radio Euskadin izan ginen, eta han esaten zuten jende asko joango zela, baina guretzat kontzertu bat gehiago zen. Arratsaldean, eszenarioan sartzean, dena a tope zegoen, jende pila bat gelditu zen sartu ezinda, kristoren hotzikara sentitu nuen, ezin nuen ez-

ta kantatu ere, «zer da hau?» pentsatzen nuen. Uste dut gu nahiko inuzenteak gine-la garai hartan, arrakastarik handienean ere ez ginen enteratzen, beti benetako arrakastaren bila genbiltzan.

— Eta zer da benetako arrakasta?

— *Lau teilatu*, adibidez, guk grabatu genuen lehen diskoan, baina gero zuzenean jo badugu izan da jendeak eskatzen zigula-

ko. Kanta horrek distorsionatu egiten zuen gure bidea, karga lastre bat zen guretzat. Zenbat aldiz ez ote dudan destruzatu nik kanta hori zuzenean, errespeto falta osoz, eta jende askok bota izan dit aurpegira hori. Heldutasun falta geneukan beharbada, edo errebelia moduko bat, edo desarraigoa...

— Ez al zaitu betetzen Euskal Herrian bitzizeak edo?

— Ni hemen oso ondo bizi naiz, hau da, Eroski, Aurrezki Kutxa, Athletic..., baina Dietz Lorensen-en liburu bat irakurtzen ari zarenean ez zaude hemen. Uste dut beharrezkoa dela irtetzea, gauza diferentek ikusteak, pertsona diferentek ikusteak ni erlajatu egiten nau, eta aldiz, etxekoek, lagunek, herrikoek, mugatu egiten nautela sentitzen dut, heldu egiten dizute, lotu.

— Agian zeu benetan zarena azpimarratzen dizute...

— Bai, agian horregatik bizi naiz Mutrikutik kanpo, akaso neure burua beti kanpotar sentitzea behar dudalako. Eta nola Mutrikutik Bilbora joatea pausu handia den, ba hori nahikoa da neretzako. Igual bilbotar batek New Yorkera joan beharra dauka.

— Luzarora Euskal Herria itogarria gerta daiteke?

— Nik sentipen bikoitza daukat. Niri gusatzen zait, adibidez, Urrestillara joan, Laja eta Landakandaren trikitixa entzun, hori sentitzen dut barruan, badakizu, trikitixaren zera hori, iuju, baina hori lehen momentuan da. Bigarrean esaten diot neure buruari, «kuidao, zu ez zara hemengoa», eta hori sentitzea oso fuertea da. Nere familiako jendeak, Mutrikuko hainbatek, ikusten nau oso euskalduna bezala, euskaraz kantatzen dut, eta batzutan beldurra sentitzen dut, pentsatzean «holakoa al naiz ni?» Bi sentipen horien aurrean nere aukera bakarra da neure musika, neure fantasmak ateratzea.

— Nola bereizten dituzu enkarzuguzko lanak zeure lan propioetatik?

— Zeure lana egiten duzunean gehiegi sartzen zara barruan, gehiegizko inportantzia ematen diozu, eta beti *quitando hierro* ibili beharra dago, bestela mistiko edo pedante baten gisan agertzen zara. Hortik dator *Atlantic River* izena jartzearen arrazoia, distantzia bat jarri nahi nuen. Enkarzuguzko lanek libreago sentiarazten naute. Badakizu zer nahi duten, zer egin behar duzun.

Nik ezuste handia hartu nuen Doctor Livinston programarekin. Roge Blasco laguna dudalako egin nuen musika, ez nion garrantzi handirik eman, eta kristoren arrakasta eduki zuen, jendea galdetzen ea norena zen.

## «Laboarekin inpresionatuta gelditu nintzen»

— Itxaro Bordak Mikel Laboaren eragina ikusi du zure azken diskoan.

— Nik 7 urterekin jakin nuen euskaldunasuna, gauza bereizgarri gisan, existitzen zela. *Haiha mutil* entzun nuen irratian, Mikelek kantatua, eta gogoratzen naiz amari esan niola: «Ama, qué triste me pone la música vasca». 'Triste' esan nuen bezala, 'emocionante', 'profundo', zerbait sentikorra adierazi nahi nuen. Mikel Laboak azertatu egiten du, intelektualizaziorik gabe, erabat modu artistikoan. Nik behin bakarrik ikusi dut bere emanaldi bat, duela gutxi, eta inpresionatuta gelditu nintzen. Neretzat bere eragina ohore bat da. Erantzuna hor lagako nukkeen, baina igual gehiegizkoa den atrebentziak esango dut, batzutan, gauza edo bide batzutan, bide berdina ibiltzen ditugula, eta erreferentzia batzuk, edo bizitzaren aurreko postura eta jarrera batzuk antzekoak dauzkagula. Oso ondo konpontzen gara, hitzegin gabe konektatzen dugu.

## ZOROTXO

